




DURANGO
Udala • Ayuntamiento


LANDAEDERRA ERABILTZEKO ARAUTEGIAREN ONESPENARI BURUZKO ESPEDIENTEA

- Hasierako onarpena: 13.04.23 Osoko Bilkura.
- Iragarpenaren argitaratzea: BAO, [97. zk., 13.05.22.](#)
- Alegazioak: EZ
- Testu osoa argitaratzea: BAO, [127. zk., 13.07.03.](#)



ARGIBIDEA

I R A G A R K I A.....	3
LEHENENGO KAPITULUA: Objektua eta izaera	3
1. artikulua.-	3
2. artikulua.-	3
3. artikulua.-	3
4. artikulua.-	3
BIGARREN KAPITULUA: Erabiltzaileei buruzkoa	3
5. artikulua.-	3
6. artikulua.-	3
7. artikulua.-	4
HIRUGARREN KAPITULUA: Funtzionamenduari buruzkoa	4
8. artikulua.-	4
9. artikulua.-	4
10. artikulua.-	5
11. artikulua.-	5
12. artikulua.-	5
13. artikulua.-	5
14. artikulua.-	5
15. artikulua.-	5
16. artikulua.-	5
17. artikulua.-	6
18. artikulua.-	6
19. artikulua.-	6
20. artikulua.-	6
21. artikulua.-	6
22. artikulua.-	6
23. artikulua.-	7
24. artikulua.-	7
25. artikulua.-	7



IRAGARKIA

2013ko apirilaren 23ko Udaleko Osoko Bilkuran harturiko akordio bidez, hasiera batean onartu zen **LANDAEDERRA ERABILTZEKO ARAUTEGIA** (2013ko maiatzaren 22ko 97. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Jendaurreko epea amaitutakoan, erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipaturiko Araudia **BEHIN BETIKO** onartzen da, ondoren ageri den bezala:

LEHENENGO KAPITULUA: Objektua eta izaera

1. artikulua.-

Landaederra gutxieneko zerbitzuak eskaintzen dituen instalakuntza da, non talde-jarduerak garatu daitezkeen. Durangoko leku esanguratsu baten kokatuta dago, Mugarra mendiaren magalean. Ondoko herri eta auzoetara hurbiltzeko leku aproposa da eta gazte edo kirol elkarteentzako azpiegitura egokia da.

2. artikulua.-

Egonaldi laburrak egiteko beharrezko ekipamendua du Landaederrak. Ez du jantoki zerbitzurik, ez ikuzgailurik, ez eta garbiketa zerbitzurik ere. Tximinia du, argi elektrikoa eta ur bero eta hotza (ez edangarria) eta janaria berotzeko sukalde txiki bat. Logelan 15 lagunentzako ohatzeak daude.

3. artikulua.-

Landaederrak ez du berezko izaera juridikorik eta era zuzenean kudeatzen da. Bere erregimen administratiboak Durangoko Udalean indarrean dauden arau eta praktikak beteko ditu.

4. artikulua.-

Landaederrak, antolaketari, funtzionamenduari eta finantziazioari dagokionez, udal izaera du. Durangoko Udalak eskumena izango du Landaederrako kudeaketa adostu, aldatu edo bertan behera uzteko.

BIGARREN KAPITULUA: Erabiltzaileei buruzkoa


5. artikulua.-

Erabiltzaileen jokaera behar bezalakoa izatea espero da bertako elkarbizitza egokia mantentzeko helburuarekin.

6. artikulua.-

Erabiltzaileen eskubideak hauek dira:

- Landaederrako barne erabilera arauak ezagutzea.
- Instalakuntza eta zerbitzuak erabiltzea arautegi honetan jasotzen diren moduan.



- Instalazioa ezarritako baldintzetan eta ordutegian erabiltzea.
- Erabiltzaileen beharrianak asetzeko baliabideez informatua izatea.
- Indarrean dagoen legearen eta aplikagarria den beste edozein eskubide.

7. artikulua.-

Erabiltzaileen betebeharrak hauek dira:

- Landaederrako araudia ezagutzea eta betetzea.
- Instalazioak, ekipamenduak eta eskaintako zerbitzuak era egokian erabiltzea.
- Erabilpenaren ondorioz eman daitezkeen behar edo matxurak jakinaraztea.
- Landaederra erabiltzeagatik ezarritako prezioak ordaintzea.
- Elkarbizitza eta garbitasun arauak errespetatzea.
- Erabiltzaile orok araudi honetan barneratutako baldintzak onartzen ditu. Taldeko arduradunak taldekideen ardura ekonomikoa eta juridikoa hartuko du bere gain.
- Indarrean dagoen legearen eta aplikagarria den beste edozein betebehar.

HIRUGARREN KAPITULUA: Funtzionamenduari buruzkoa


8. artikulua.-

Landaederra erabiltzeko, derrigorrezkoa izango da NAN edo pasaportea aurkeztea eta fitxa betetzea non zerbitzua egoki erabiltzeko arauak izendatu eta onartuko diren. Informazio hau Landaederrako erregistro liburuan jasoko da eta Durangoko Udalak berau kotsultatzeko baimena izango du.

- a) Landaederra urteko 365 egunetan zabalik egon ahal izango da, erabiltzaileek hala eskatzen badute. Landaederrako ordutegia Durangoko Udalak erabakiko du. Informazio hau ikusgai egongo da Landaederrako sarreran edo-ta iragarki taulan.
- b) Durangoko Udalak sarrera eta irteera ordutegia erabakiko du. Azken eguneko irteera ordua luzatuz gero, beste gau bat ordaindu beharko du erabiltzaile-taldeak. Ordutegia ikusgai egongo da Landaederrako sarreran edo-ta iragarki taulan.

9. artikulua.-

Giltzak Pinondo Etxeko Gazte Informazio Bulegoan hartuko dira. Ordutegia: astelehenetik barikura 10:00-14:00 eta 17:00-21:30.



Behin erreserba-egunak amaituta, giltzak hartu ziren leku berean edo alde biek adostutako beste batean utziko dira.

10. artikulua.-

Durangoko Udalak sarrera ukatzeko eskubidea du.

11. artikulua.-

Ezin da drogarik kontsumitu. Erretzea eta alkohola edatea ere debekatuta dago.

12. artikulua.-

Lozakua edo izarak eramatea beharrezkoa da.

13. artikulua.-

Animaliak sartzea galarazita dago.

14. artikulua.-

Erreserba egiterakoan, talde bakoitzak arduradun bat aukeratuko du. Berak bermatuko du Landaederraren erabilpen egokia.

15. artikulua.-

Erreserben lehentasuna. Landaederran lekua hartzeko, ondorengo lehentasunak ezartzen dira:

- Durangoko Udala. Udalerrian egiten diren gazteria, kultur eta kirol ekimenak egiteko. Udalak berak antolatuta edo ezein erakunde publikok edo pribatuk antolatuta eta Udalak bere gain hartuta.
- Gazteei zuzendutako ekimenak egiten dituzten Durangoko irabazi asmorik gabeko elkarteak.
- Durangoko irabazi asmorik gabeko beste elkarteak.
- Durangoko biztaleria orokorrean.
- Beste udalerrietako elkarteak eta publiko orokorra.

Epe berean, eskaera bat baino gehiago egonez gero, eskaeraren erregistro data aintzat hartuko da.


Erreserbarako epe bi zabalduko dira:

1. epea: Urriaren 1etik martxoaren 31ra.
2. epea: Apirilaren 1etik irailaren 30era.

Erreserbak epe barruan egingo dira. Epe bakoitzeko lehenengo bi astetan gazte elkarteei emango zaie lehentasuna. Hurrengo astean, Durangoko beste elkarteei eta azkenik beste elkarte edo pertsonai. Erreserba egingo da behin ezarritako prezioa ordainduta dagoenean.

16. artikulua.-

Prezioa. Landaederrako mantenimendu egokia bermatzeko, eguneko eta pertsona bakoitzeko, 4€ko prezioa ezartzen da Durangon erroldatuentzat. Prezioa, %30a garestituko da Durangon erroldatuta ez daudenentzat (5,20€).



17. artikulua.-

Gutxienez 7 eta gehienez ere 15 pertsonako erreserbak egingo dira. Gutxieneko pertsona kopurura heldu ezean, 7 pertsonengatiko prezioa ordainduko da.

18. artikulua.-

Dirua aurreratzea. Gazte Informazio Bulegoak erabiltzaileei beharrezko dokumentazioa emango die aurrerakinaren ordainketa egiteko. Horretarako, faktura osoaren %50a eskatuko da. Kopuru hau erreserbaren konfirmazio datatik hilabetera ordaindu beharko da.

Fidantza. Behin betiko erreserba egiteko, eguneko 5 euroko fidantza ordaindu beharko da. Ordainketa hau Durangoko Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan (Andra Maria, 4) erreserba egin eta astebetera egingo da.

Gazte informazio bulegoak eskubidea izango du fakturaren %100a aurrez eskatzeko.

19. artikulua.-

Ezarritako epean, behin ordainketa eginda, erreserba konfirmatuko da. Horrela ez balitz, Gazte Informazio Bulegoak erreserba bertan behera utzi ahal izango du.

20. artikulua.-

Erabiltzaileek bertan behera utzi ditzakete kontratatutako zerbitzuak eta ordaindutako kopuruak berreskuratzeko eskubidea dute. Haatik, Gazte Informazio Bulegoak erreserbaren kudeaketagatik (erreserba informatikoa, dokumentazioa, banku gastuak) eta anulazioagatik eragindako gastuak berreskuratzeko ahalmena izango du irizpide honek aintzat hartuta:

Bertan behera uzteko epea (sartu aurretik)	Kudeaketa eta anulazio tramiteek eragindako gastuak. Ordaindutakoaren ehunekoa.
14 eta 2 egunen artean	%50 kudeaketa eta anulazio tramiteengatik.
2 egun baino gutxiago	%100 kudeaketa eta anulazio tramiteengatik.

*Erreserba 14 egun aurretik bertan behera uzten bada, fidantza kobratuko da.


Erreserbak bertan behera uzteko eskaria idatziz aurkeztu behar da eta alde bidek konfirmatu behar dute.

21. artikulua.-

Gazte Informazio Bulegoak ez du ardurarik izango erreserba bat bertan behera uzteagatik baldin eta aurreikusi ezin den kasuren bat gertatzen bada. Ezinbesteko gertaeraren bat egongo balitz (alertak eguraldiagatik, etab.) ordaindutakoa itzuliko da.

22. artikulua.-

Instalazioetan kalterik balego, Landaederrako arduradunak ebaluatu eta unean bertan ordaindu behar izango da. Gerora antzemango balitz, arduradunari faktura igorriko zaio. Era berean, behin erabilia ez ohiko garbiketa behar balitz, arduradunak ordaindu behar izango du.



Arautegi honetan jasotakoa betetzen ez bada, Durangoko Udalak egoera aldatzeko neurriak hartu ahal izango ditu, bai eta Landaederratik erabiltzaileak bota ere. Eraikinean edo instalazioetan kalterik egiten bada, berauek ordaintzeko betebeharra dute erabiltzaileek. Landaederra erabiltzea ukatu ahal izango zaie Durangoko Udalarekin zorrak dituenek, kalteak egin eta ordaindu ez dutenei edo instalazioen erabilera desegokia egin dutenei. Landaederran egindako ekintzen ardura, bere egileen edo ordezeko legalen esku egongo da. Durangoko Udalak behar diren lege izapideak burutu ahal izango ditu.

23. artikulua.-

Gazte Informazio Bulegoak erabiltzeen datuak gordetzeko eta Landaederraren inguruko gaietarako erabiltzeko eskubidea izango du.

24. artikulua.-

Erabiltzaileek gordetako informazio hau kentzeko edo zuzentzeko eskubidea dute. Datuok ez erabiltzeko, idatziz eskatu beharko da.

25. artikulua.-

Gazte informazio bulegoak ez du erantzunkizunik izango Landaederran gerta daitezkeen lapurretetan. Erabiltzaileek behar besteko zainketa egingo dute.

Durango, 2013ko ekainak 27a

Alkate Ordea andrea,

Izp.: Maria Jose Balier Orobio-Urrutia